

2018ko URRIAREN 22ko HERRIKO KONTSEILUA

Hor zirenak: 9 - BARBIER, ETCHART-DUHALDE, ECHEVERTZ, GARY eta OXARANGO andreak, eta BARNECHE, BISCAY, ETCHEBERRY, ETCHEGARAY, HERNANDEZ eta SOULIGNAC jaunak
Ezin etorria jakinarazia zutenak: 3 – ETCHEVERRY anderea

1. Elixaldia etxe-multzoari buruzko deliberamendua; jabetza publikoari gune komunaren saltzea

Jaun auzapezak biltzarrari oroitarazi dio deliberamendu bat hartu zela 2017ko otsailaren 27an. Deliberamendu hori etxe-multzo proiektuari esker sortu errepideei, muntadura bereziei eta berdeguneei buruz ari da, eta Office64 eta Herriko Etxearen arteko salmenta-hitzarmenaren izenpetzea erabakitzen zuen.

Beraz, jaun auzapezari beharrezkoak diren urraspideen betetzeko baimena eman behar zaio obren ondotik jabetzaren eskualdaketa egiteko.

Herriko Kontseiluak jaun auzapezari baimena eman dio salmenta horri doazkion agiri eta dokumentu guzien izenpetzeko.

2. Herriko diru-laguntzen ematea

Herriko ikasleei 2017/2018 ikasturtearentzat goi-mailako ikasketak egiteko emanen zaien departamenduko diru-laguntzen kopurua jakin ondoan,

Herriko Kontseiluak,

- **erabaki du** herriko diru-laguntza hauen ematea (Departamenduak eman diru-laguntzaren % 20)

➤ CASTOREO Ximun	18.00 €
➤ CASTOREO Antton	18.00 €
➤ GERMAN Thomas	18.00 €
➤ SAINT-MARTIN-DIT-MARTINON Maia	72.00 €
➤ SAINT OMER Lora	62.00 €
➤ DUNATE Itxaro	42.00 €
➤ DUNATE Ellande	42.00 €
➤ DURRUTY Alexandre	18.00 €
➤ LOYATHO Maider	122.00 €
➤ LOYATHO Txomin	22.00 €
➤ MONGABURE Argi	62.00 €
➤ MONGABURE Xan....	62.00 €
➤ NAVARRE Léopoldine..	18.00 €
➤ SEOSSE-OXARANGO Maitane..	118.00 €

3. 2. erabaki aldatzailea 2018ko aurrekontuarentzat.

Herriko Kontseiluak 2. erabaki aldatzailea onartu du 2018ko aurrekontu nagusiarentzat, taula honetan agertzen den bezala:

FUNTZIONAMENDUA	
GASTUAK	
6558 – Baitezpadako beste ekarpenak	-200
6714 – Diru-laguntzak eta sariak	200
OROTARA	0

4. Toponimia eta helbideratzea

Herriko bideen sailkapen berria, haien izenarekin eta dagokien luzerarekin.

Departamenduko Kontseiluak eta Euskal Hirigune Elkargoak ohartarazi digute bideek ongi behar zutela helbideratuak izan, bereziki banda zabalaren (Internet) plantan ezartzeko.

Helbideratzea ere erabakigarria da lurralde antolaketarentzat, bereziki zerbitzuen ukaiteko (sokorria, osasuna, banaketa...).

Baserrialdeko zenbait bide zainduak eta erabiliak baitira, onura publikoa duten herri-errepide bilakatuak dira. Beraz, herriko errepide gisa sailkatuak izan daitezene normal da.

Badu hiru urte herriarteko batzorde baten kariatara bideen izendapen lana hasia dela, haien izena ahal bezainbat zainduz.

Aurkeztu dugu herriko bideen sailkapen taula eguneratua, izen berrieekin. 2016ko urriaren 24ko bilkuran onartu taularen ondotik jin da.

Errepideen Kodeko L.141-3 artikulua dio herriko bideen sailkapena eta desklasatzea aitzineko inkesta publikorik gabe egin daitekeela, salbu bideen zirkulazio funtzioaren kaltetan baldin bada.

Kontuan harturik aurreikusitako diren proiektuek ez dutela bideen zirkulazio funtzioari kalte egingen, eta, beraz, ez dela aitzineko inkesta publikorik egiteko beharrik, galdatzen dizuet Frantziako Estatuko zerbitzuei igorriko zaien izendapenen onartzea. (Ikus loturik den Excel taula).

Erabakia hartu ondoan, mapa Interneten kontsultatzen ahalko da Herriko Etxearen webgunean ezarri esteka baten bidez, bai eta Herriko Etxearen sartzean berean, kontsultatu nahiko duten herritar guziendako.

5. Gazteen Etorkizunerako Tokiko Misioari 2018ko diru-laguntza

Kontuan harturik Gazteen Etorkizunerako Tokiko Misioak 16 eta 25 urte arteko gazteei ematen dien laguntza, Herriko Kontseiluak erabaki du 1 090 €-ko diru-laguntza emanen diola 2018ko funtzionamenduarentzat, hots, 1,1041 € biztanleko.

Gainerako gaiak:

- Etchemendy afera

Etchemendy jaunari igorriko zaion gutuna irakurri da, zeinetan galdatu lursailaren historikoa zehazten baita.

Justizia prozedura batera iragan aitzin, gatazka horren onez oneko tratu bat hobesten dugula seinalatua izan da.

- HTHPz puntua

HTHPz buruzko eztabaida

Herriarteko Tokiko Hirigintza Planean plantan ezarri AGIpeko (Antolakuntza eta Garapen Iraunkor Proiektua) elementuak oroitarazi dira (2016ko abenduan bozkatuak).

- Biztanleriaren errezibitza menderatzea, eta lurraldearen nortasunaren zaintza.
- Dinamika ekonomikoa eta laborantza atxikitzea eta egituratzea.
- Bizi ingurumena, bazterren eta ingurumenaren kalitatea zaintzea.

Aiherrari dagokionaz:

Eremuak aitzinetik finkatu dira Hazparneko Lurralde Eremuko beste herriekin hitzarturik.

Euskal Herriko LuKEk (Lurralde Koherentzia Eskema) agindu arauk eta hirigintzari buruzko Frantziako arauk finkatu irizpideak jarraikiz egin da. Betebehar horiek erabili eremuak mugatu behar dituzte bai eta herri guzien artean partekatzeak diren bizitegi potentzialen kopurua ere. Eremu urbanizagarrietara behar dira lehenetsunez sare elektrikoa, errepideak eta sanotze kolektiboa eraman.

Artelia bulegoarekin elkarlanean, leku bat baino gehiago hautatuak eta lehenetsiak izan dira. Ikerketaren epemuga bukatzen ari da, eta herritarren galderei ihardetsi behar diegu. Arauak egokitu daitezke (ikertzen ari diren herritarren baimenak), baina bakan gertatzen da. Eremu horietan geroan izanen diren hirigintza baimenentzat epe bat erabaki beharko da. Eskaera egiten dutenek haien eskabideak egiten ahalko dituzte inkesta publikoa eginen delarik; hau 2019ko lehen sei hilabeteetan iragan behar litzateke.

Puntua eginen da Artelia bulegoarekin eta beste herriekin azaroaren 9ko gidaritza batzordean.

Eraikuntzen araudiari dagokionaz, denen iduriko behar da kontrola egokia egin, baina ez hertsagarriegia (berina zabalak), etxeak tokiko tradizioaren arabera izan daitezzen.

- **Karga Eskualdatuen Lekuko Ebaluazio Batzordearen txostena:**

2018. urte hastapenean ordainsariei buruz jakinarazi zenbakiei dagokionaz hitza bete dugu.

Herriarteko elkargoak bateratzearekin, herri batzuek Estatuaren emaitza franko galdu dituzte, eta beste batzuek, berriz, irabazi dituzte. Akats horiek zuzendu dira hiri handiei eta Euskal Hirigune Elkargoari esker.

Gure aldetik alokatzeko izanen den Elixaldeberria bizitegiaren eraikitzeke 21 102 €-ko diru-laguntza ukanen dugu.

- **Denen etxearen erabiltzea:** Denen etxearen erabilpena berriz ikusiko da (prezioa, lekuaren egoera akta, herrikoak ez diren taldeen onartzea...); jaun auzapezak araudi berriaren finkatzeko asmoa du.

- **Energia positiboak Hazparneko lurraldean**

Informazio gehiago Herriko Etxearen eta Elkargoaren webgunean.

- **Adinekoen arratsaldeko askaria:** 75 urtez goitiko aihertarrei arratsaldeko askari baten inguruan goxoki biltzea proposatuko zaie. Abendu hastapenean finkatuko da eguna.

- **Hauteskunde batzordea:** Sabine ETCHEVERRY andereari hauteskunde zerrenden kontrola batzordean aulkia eman zaio. Herriko Etxearen ordezkaria izanen da herritarren ordezkari diren Mayalen Christy eta Jean Mixel Barbierrekin.

Bilkura 22:15ean bururatu da